

“VERSO BERRIAC AMBOTOCO PERU ETA ANTONI JARRIAC” SORTAREN GAINEAN HITZ BI

Sarrera

Julen Urkiza eta Luis Baraiazarra adiskideak, ikertzaile eta idazleak ez ezik, akulatzaile eraginkorrak ere badira. Lanen batean kateatuz gero eta eskuetatik atera ezinez ibiliz gero, idi nagia lanean jartzeko itzainak akulu zorrotza erabiltzen duen moduan, gaur eguneko aurrerakuntza omen den telefono-dei baten bidez berehala ziztatu eta gogoraziko dizute *Karmel* aldizkaria hornitzeko agindutako lana falta dela, egun batetik bestera silutegira eraman behar dutela... Niretzat ez dago, egia esan, adiskide on baten hitza baino akulagarri handiagorik mahaian jarri eta lana eskuartetik ateratzeko. Eta akuluak -edo bestela esan, nonahi zaudela harrapatzen zaituen telefono-dei horrek-, sakakada bat eman eta berehala jartzen nau erdi idatzian nuen lan hura borobiltzen, ertzak hiltzen, zehaztasunez jazten...

Oraingo neure lantto honetan Bizkaiko bertso jarri zahar batzuen berri eman nahi nuke. Lantto honetara aurkitu ahal izan ditudan bertso-sorta edo sailaren aldaerak ekarri nahi nituzke. Behin bertso corpus edo oinarria finkatu ondoren, ezinbesteko ohar batzuk egingo ditut. Oharrak, jakina, askoz gehiago izan daitezke baina kontu hori norberaren interes edo arreten araberakoa izan ohi da: hitz, morfologia, sintasia, bertsoaren puntuak... Lantto honekin material bat eskuratu aldizkari apain honetako irakurle landuari.

Bizkaiko bertso jarrien bildumak direla eta

Bizkaiko bertso-biltegi diren liburu bat baino gehiago ditugu, zorionez. Jose Maria Uriarteren (1812-1869) *Poesia Bascongada Dialecto Vizcaino* lan zoragarria da ezagutzen dugun zaharrena. Gerora etorri dira beste batzuk ere. Xabier Amurizak bi liburu sendo eta eder argitaratu ditu: *Bizkaiko bertsogintza Izengabeak I eta Bizkaiko bertsogintza II* Izendunak. Badira liburu guzti hauetan agertzen ez diren Bizkaiko bertso-sorta zahar eta ederrak ere. Bertso-sorta horiek aldizkari zein egunkari zaharretan ez ezik, oraintsuko aldizkarietan ere badira Jaungoikoari eskerrak. Horren erakusgarri bikaina da esaterako *Aikor* aldizkarian Juan txu Bilbaok agertu duen sorta ederra (2003 urtarrila, 12 zenbakia, 26 or.):

- 1 Mille urte ta bederatzireun
amazortziko urtean,
gertuten gara zer jazo jakun
azalduteko ustean.
- 2 Zazpi morrosko alkartu giñan
Deustuko erreka artean,
bazkalduteko Mungi barruko
jantoki zoli batean.
- 3 Urtarrillaren amazortzian
da San Antontxu egune,
Mungian bertan bazkalduteko
gogoak emon euskune.
- 4 Sopa, garbantzu eta indabak
ez egoazen larregi,
guzurrik ezin esan genduke
azea ego(a)n ugari.

- 5 Okela be apur bat baño
etzan inondik agiri,
ez genduan jan apur bat baiño
ez eudelako ekarri.
- 6 Zazpi giñean artean baiña
emen ez dago guzurrik,
zortzigarrena agertu jakun
urd(a)ille bete gurarik.
- 7 Danok geunkean orixe baina
dana izan zan alperrik,
zortzirontzako indaba artean
txorisotxu ba bakarrik.
- 8 Gero gisedu, makaillo eta
naste tomate gorrie,
onen urrengo ekarri euskun
artxotxu baten erdie.
- 9 Guretzat beintzat urri egoan
urdaillen betegarrie,
janak ementxe amait(z)en dire
auxe da egi egie.
- 10 Janak amaitu zirenean
emon euskuen buruek,
artu egitea kafeak eta
txakur binako puruek.
- 11 Galleta terdi bakontxantzako
ta kopa bana koñaka,
gaztaia eta ikopatz batzuk
guztie dago esanda.

- 12 Agur kafeak, agur puruek
agur jana ta edana,
betor kontue tabernerea
ori da emen bear dana.
- 13 Ikeratute gelditu giñen
entzunik beran esana,
genkielako bazkari ori
merkeegia ez zana.
- 14 Geugez batera euki genduen
taberneruen lobeia,
axek euki eun beragaz danak
ara eroan gurea.
- 15 Ak uste eban guztiontzako
izango zala ohea,
baiña azkenez ango kontuek
karuek urten daudea.
- 16 Bein jan ezkerro akikulekaz
ezin leikea konpondu,
eskatutakoak pagaute oba
toki atatik aldendu.
- 17 Orretaraxe geure biotzak
egin zirean bigundu,
eta bakotxak emon genduzen
mille ta eun zentimu.
- 18 Neska gazte bat etorri jakun
kitatuteko lekure,
amakana lau errealeko
emon geuntsezan eskure.

- 19 *A la barata* esanagaitik
koiu ezkerro lekure,
a la barata esan bai baña
merkezaleak ez dire.
- 20 Egun orretan merkezalea
ez zara izan, Sotera,
nai izan arren ezin koixu lei
guztie era batera.
- 21 Gauza karue ipinteagaz
dator norberan kaltera,
karure baño askoz geiago
joaten dire merkera.
- 22 Gauze merkeak poztuten ditu
emakume ta gizonak,
ortxe aditu bear dau beti
gauzea saldu bear dauanak.
- 23 Gu bere gagoz gauza orretan
apur bet ikeratute,
gagozelako kontu karuen
palukadea artute.
- 24 Danok ibili bearko dogu
gauzari begiratute,
ezin biziko garealako
gitxi ta karu pagaute.
- 25 Inor badago onek bertsook
gogotik entzun ezinik,
datorrela berak nai badau
esan badogu guzurrik.

Beti bezala, jatorrizko kopla-sorta errespetatu nahi izan dugu ahalik eta gehien: batetik, fonetismo edo foneticismo direlakoak, eta bestetik, ortografia bera. Kontu jakina da bi kopla-ren gehitze edo elkartze bidez sortua dela zortzikoa, Abel Muniategik idatzi duenez. Guk jatorrizko testuan dauden bezala jarri ditugu koplak bertso bidez ezin izan ditugulako eman. Gehienetan ikusten da halako batasuna, baina ez guztietan. Jatorrizkoan agertzen diren ahapaldiak guk zenbakitu egin dugu lantto honetarako. Bertso bidez eman daitezke, esaterako, 1-2, 4-5, 6-7, 8-9, 12-13, 14-15, 16-17, 18-19, 20-21, 23-24. Solte gelditzen dira, era honetara eginik, 3-10-11-22-25.

Zerbait gehitu beharra ikusi badugu, parentesi artean jarri dugu. Testua apurren bat irensgarriagoa gerta dadin puntuazio marka batzuk erantsi dizkiogu. Aldaketei dagokienez, bi baino ez ditugu egin: azkenaurreko *ibili* hori “ibili” bihurtu dugu, eta azken koplako *esan badugu guzurik* bertsolerroa “esan badogu guzurik” batera aldatu dugu. Ez dago esan beharrik kopla-sorta hau eder bezain interesgarria egin zaigula. Ederra da, batetik, ia ehun urte izan arren oso osorik gordetzen delako, eta, bestetik, Bizkaiko mendebaldeko euskara ezagutzeko erakusgarri aparta delako. Hor daude, esaterako, *aki(a)kula* hitza “aitzakia” adierazten duena, koiu” aditza, Euskal Herriko gainerako lekuetan hartu esaten dena eta abar.

Hona aldatu dugun sorta honek ez du gai berririk eskaintzen. Nori ez zaio gertatu, munduan hara ibiliz gero, uste baino mila aldiz txartoago jatea dela jatetxe, dela ostatu, dela ardane-txe batean, eta nahi baino mila aldiz gehiago ordaindu beharra izatea? *Peru Abarca* lanean ere ez al zaie gauza bera gertatzen Peru Abarka eta Maisu Juani Bizkaiko harako benta hartan?

Anbotoko bertsoak: iturriak, aldaerak

Bada bertso-sorta zahar bat berrehun urte inguru behintzat badituena. Bertso-sorta horri “Anbotoko bertsoak Peru eta

Antoni jarriak" deituko diegu. Modu laburrean nahi bada, "Anbotoko bertsoak". Bertso-sorta beraren hiru aldaera baka-
rrik aurkitu ditugu. Aldaerarik zaharrena Edward Spencer
Dodgson (1857-1922) bildu eta Parisko Bibliothèque
National delakoan dagoena da (Celt & Basque 169, 90-91-92
or. Verso berriac recogidos por Dodgson) . Bertso sorta hau
1891 baino lehenago bildua da eta Dodgson-ek berak dioenez,
berrehun urte lehenago kantatzen ziren Durangaldeko taber-
netan. Ingelesezt transkribatu dugun testuan honelaxe dio: This
song said to be 200 years old is sung in the taverns of
Durango. This copy was given to me today by the bookseller
de Elosu, son of de author of "Elementos de gramatica
Castellana para uso de los niños etc: Bilbao 1869" (Un real) I
have much plesure in presenting it to monsieur Antonio
d'Abbadie/ E. S. Dodgson (Durango October 1est 1891).

Aurkitu dugun bertso-sorta beraren bigarren aldaera 1937
urtean argitaratua da. Bertso sorta hori *Eguna* egunkarian, 98
zenbakian, 1937 urteko jorrailaren 25, 4 orrialdean argitaratu
zen. Eta aurreko transkripzioan bésala, bertso-sortaren za-
hartasunaren berri ematen da. Biltzaile ezezagunaren azalpe-
nak honelaxe dio hitzez hitz: "Oarra: Mandiolatar Joseba za-
rrak abestu dauskuz "bertso barriok" eta berorrek aitzen
emon dauskunez orain 70 urte-inguru argitalduak dira ta
"Pantillon" izeneko bertsolariak egiñak: "Pantxillon" ori
Gernika aldekoa zan ausago ta gitxik egin izan dabena egin
eban: bertsok bizkaieraz.

Hirugarren iturria oraintsuagokoa da eta Balentin Enbeita
bertsolari muxikarrak argitaratu zuen (*Zeruko*) *Argia* aldizka-
rian 1985 urtean, 1070 zenbakian, 41 orrialdean. Bertso-sorta
zaharra zela argi asko zekien Urretxindorraren seme argiak
"Orain dela 150 urte eginak, Peru eta Antoni jarriak" zehaz-
tasunarekin batera, nori jasoak ziren ere jarri zuelako. Hona
nola zioen: "Bertso hauek Muxika-Areatzako Bixente Bilbao-
ri entzunak dira. Orain dela 12 urte hil zen 91 urte zituela.

G. B.". Hiru bertso-sorta hauetan, harrigarria badirudi ere, bertso gehien dituen B. Enbeitak bildua da. Interesgarriena, oster, gure ustean, Dodgson-ek bildua. Bilketa-data ere askoz lehenagokoa dela kontuan izan behar da. Kontu ezaguna da guztiontzat: zenbat eta lehenago bildu, ale osoagoa izaten da bildutakoa. *Eguna* egunkariko sorta, ordea, berrogeita hamar geroago Balendin Enbeitak argitara zuena baino askoz murrizagoa da.

Hona ekarri digutun hiru sortak jazten edo hornitzen duen azalpena bateratsu dator hiru kasuetan: bertso-sorta zaharra da eta interes handikoa da, hain zuzen. Zahartasunaren alderdi hori izan da, besteak beste direla, lan honetan murgiltzeko bultzatu gaituen eragilerik handienetakoa.

Bertso kopuruei dagokienez, azkenik, Dodgson-ek bildua 15 bertso ditu; *Eguna* egunkarikoak 9; B. Enbeitak bildutakoa 17 bertso. Hiru bertso-sorta hauen iturria bertso-paper bat izan behar zuen. Bertso-paper zahar hori, ordea, ez dugu biltzerik izan, eta oraingoz ditugun hiru sorta politekin osatu beharko dugu lantto hau.

Balendin enbeitaren aldaera

Lan honen atal honetan (*Zeruko*) *Argia* aldizkarian agertzen den aldaerarik osoena agertu nahi dugu. Guk, betiko geure irizpideari jarrituz, ahalik eta fidelen izan gara jatorrizko testuari. Ezagutzen ditugun bertso-sortak modu berean jarri nahi izan ditugunez gero, Iparraldeko sistema aukeratu dugu eta ez Hegoaldekoa. Zergatik aukera hau? Begi-bistara gozoagoa delako, batetik, eta, Dodgson-ek berak hala egiten duelako, bestetik. Atal honetarako gure transkripzioan jatorrizko ortografia gorde dugu. Puntuazioa, ordea, gurea da. Egin dugun aldaera bakarra boskarren bertsoan zopa(n) horretan parentesiak jantzea izan da. Azken bertsoko parentesiak, oster, B. Enbeitarenak berarenak dira.

- I Bizkaiko bazter baten, Anboto partian
gizon bi bizi ziren baserri batian.
Goizean sartzen ziren tabernako atian,
ez zuten alde egiten bieramon artian.
- II Gizon biok ziraden Peru eta Anton,
euren aldi guztian biziak Anboton.
Biek euki ezkerro edaria monton,
atsuei esaten eutsen: "haguaz ta hor konpon".
- III Bekixen hotza zena etxeko artua,
Agaitik armatzeben beiakin tratua,
tabernara ezkerro seguru katua,
pozik eskapatzeko bazen zapatua.
- IV Etxian eukiarren sarri morokille,
harek ipinten eutsen estomangu ille.
-Goiazan tabernara hobiaren bille,
andrea umiakin ixurratu delle!
- V Artoa zopa(n) eta txoletian ure
etxuat atxonduan holan bizi gure,
lebatz eta ternera, lukenka musturre
honekin egoten naz tabernan gusture.
- VI Biak egin ei dabe seguru juntie
mozkorrik hartu barik etxera ez juatie.
Erretiratu arte herriko jentie
etxera doianari kentzeko mueltie.
- VII Atsuari gorde dautsat ule-kopetie
kostako iako orain bera topetie.
Hau salduta edan daigun aguardientie
buru motzik dabillega atso tronpetie.

- VIII Tabernerai dirautse:-Entzuxu, patrona,
apari txar bi baiño oba da bat ona.
Ezer baldin badago, ekarrixu ona,
dirurik ez badogu, emango iak bona.
- IX Peruk dirautso Antoni: -Atera pipie
asunbra ta erdirekin bete daigun tripie,
gainera edan daigun aguardientie,
neri beti gustau iat edari fuertie.
- X Arratsalde erdian jarri ziran maian
euren estamangillak bete arte larrian.
Gero handik etxera ia gauerdian,
gomuta asko barik euren familian.
- XI Pipie mosuen ta txapela eskuen,
biderik topau ezinik badabiltzaz auzuen,
estrepesetan dira hurrengo pausuen
begi biez aurrera sartu ziren pozuen.
- XII Biak han ebixela kakatzan aratin,
ezin aitu eukixuen euskara ala latin.
Bator asto bategaz errotako Martin,
honek atara zitun bere astoakin.
- XIII Peruk dirautso Antoni:-Antontxu, Antontxu,
kakatza artian majo ein dogu koipetsu,
bost aldiz deskantsuan hartu dogu pentzu,
jarri zaiz albuan da hartuxu deskantsu.
- XIV Peruk dirautsa Antoni:-Zu Anton Kurtzulu,
kurtzulua izan da illun eiten dozu”.
Hasten dira esaten:-Anton eta Praisku
zure buruko kalbuak argi eingo dausku.

XV Kurtzulu ipini iok argiai metxie
bestela ezin geinke topatu etxie
kortako burdi zarra banaioke kotxie,
hantxe ibilko neuke neure atso motxie.

XVI Haren andra tristeak bildurrez ikera
Ana Mari "Errota" ta Malen "Partikera".
Horregaitik agurak bazeukan bizarra
atsuai kokotien hausteko pitxerra.

XVII Hamazazpi bertsorekin horra despedida
Kurtzuluen kantuak akabatu dira.
Atsuak agurekin haserre badira,
alkarrenak (dira ta) konponduko dira.

Dodgson-en "ambotoko peru eta antoneri jarriac" sortaren transkripzioa

Harrigarria da euskaldunon begietarako, hasteko eta behin, ingeles batek egindako transkripzioa hain ona eta zuzena izatea. Testua bere osoan ulertzen da eta ez du merezi gaurko ortografiara aldatzea. Bada sorta polit honetan ahapaldi bat Balendin Enbeitarenean agertzen ez dena, hamargarrena hain zuzen. Dodgson-ek egindako transkripzioaren ondoan *Eguna* egunkariko eta B. Enbeitarena jarri ditugu aldaerak irakurleak berak ikusi ditzan. Hona beste gabe:

I Biscaico esquiñabaten, Amboto partian
Guisombi bisiciran baserribatian;
Goisian sartzen ciran, tabernaco atian
Eseben alde eguiten moscortu artian.

Verso berriac

90

Ambotoco Peru eta tutonari' berriac

¹
Biscaico esquinatsten, Amboto partian
~~Amboto partian, Amboto partian~~

Quinombi bisiciran baseribatian;
Quinian sartzen eiran, tabernas atian
Eseben alde egiten, masearten artian,

²
Quisonbioc siraben Peru eta tuton
Quiren alde partian vicigae x Amboton,
Biac eura baseriquen edaxia monton
Astuar' esateco ur, ta banatzen.

³
Bolan engui urten sarri, morquilla
Aree ipintzen eluscu estomanguilla
Goacem tabernara, obierem hil'ia
Astua uniaquin isurra abilla

⁴
Peruc disenteo tuton biteren pipia
Aunbra ta erdirquin biteren tripia
Gurosu edan daigun aguradientia
Peron gutatzen, edari fientia

⁵
Astuar' gorde elutrat ule copetia
Orain costaco jaco beru topetia,
Salchu ta erundaigun aguradientia
Biran, mor' abilla atxo tropetia.

Chapele esuan da ⁶ pipia moman
 Bieoric topam sinde labiltas nupuan
 Estrepasaten dira bigarren paumuan
Regui biacaf. murtara sartzen dira posuan
⁷
 Tencu direntes Autou berdom Autou den
 Lupas artian, mago eguinclu opasiten
 Post aldiz de cantuan artu egu jian
 Tati: saite, onduran de artian de causu
⁸
 Vmengo disentes de Autou curulu
 Curulu idan ete iban eten don
 Asiran contestetan Autou ete Truism
 Sure busu colbual, argui equingo eten
⁹
 Curulu fina elago, argui ley media
 Bertela emi ~~peru~~ quiney, billatu talia
 Cure estres burdia balia esolia
¹⁰
 Tude erubiles ~~peru~~ quemque pucato melle
 Omindun, bazu, Truism, erotusia,
 Quin, enaxioy asosen, du erale garbur
 Fous: ebaman Peruen bazu, arguia
 Calbutic penitran ebam sala idarguia
¹¹
 Tren sandra tristae, bildures icasa
 Truamari esotes malen partiesta
 Capitins aguroe, basenpueu bisarra
 Atzuari austes coestian pitharra

- 12

Pire un dabilata lupasan, alatin⁸¹
 Isin compenditu surquere p' la latin,
 Patoz aslo batelhin, errotaes Morlan
 Ace etera, siturain, bere, astuaguir.

13

Artua zopar eta, chocolatea usa
 Idunak ach onduan aban biriguan
 Lebatx edo tuncra, lucainea, marturra
 Oleguin egotenoe tuberman gustura

14

Isur eta batonee egundate puntia
 Moscorra, astu barie eshera es puntia
 Metiratu arte erico gontia
 Idreze duamari, guntzeo, puntia

15

Ora bera onenae ora abepedida
 Lu sere egon gabe atzera begura
 Lomae atzera gura, atzera baxura
 Alasmenae elira ta, compo adu es bira.

This song said to be 200 years old is sung in the environs of Durango.
 The copy was given to me today by the brother-in-law of the son
 of the author of the "Cancion de la Promesa" (1871) p. 100.
 It is the same as the Bilbao (1871) p. 100. I have much to say
 in relating it to the "Cancion de la Promesa" of Albarran.

J. S. Dodson
 Durango, October 16, 1911

Egunakoa: I-*Bizkai'ko bastar baten, Amoroto partian,/ Gizon bi bizi ziran basarri batian;/ Goizian sartzen ziran Tabernako atian,/ Ezebela urteten /Biaramon artian.*

B. E.: *Bizkaiko bazter baten "Anboto partian" / gizon bi bizi ziren Baserri batian/ Goizean sartzen ziren Tabernako atian/ Ez zuten alde egiten Bieramon artian.*

II Guisonbioc siraden Peru eta Anton
Euren alde gustian viciyac Amboton,
Biac eure baseuquen edadia monton
Atzuari esateco nua ta banaton.

Egunakoa: II-*Gizon biok zirian Peru eta Anton,/ Euren aldi guztian biziak Amoroto'n;/ Biak euki ezkerro Edaria bon-bon/ Atsuari esaten eutsen: "Nua ta banayaton". B. E.: Gizon biok ziraden Peru eta Anton/ Euren aldi guztian biziak "Anboto"/ Biek euki ezkerro Edaria monton/ Atsuei esaten eutsen(:) Baguaz ta hor konpon(.)*

III Echian euqui arren sarri moroquilla
Arec ipinten deuscu estomangu illa
Goacen tabernara, obiaren billa
Atzua umiaquin isurra dedilla

Egunakoa: VI-Anton. -*Etxian eukiarren Sarri morokilla,/ Arek ipinten dausku estamangu illa:/ Guazen tabernara Obiaren billa,/ andria umiakaz Tximurtu dadilla."*

B. E.:VI-*Etxian euki arren Sarri morokille/ Harek ipinten eutsen Estomangu ille/ Goiazan tabernara Hobiaren bille/ Andrea umiakin Ixurratu delle.*

IV Peruc direutzo Antoni beteisu pipia
Asumbra ta erdirequin betedu tripia
Gurosu edan daigun aguardientia
Neroni gustatzen edari fuerfia.

Egunakoa: IV-*Peru'k dirautso Anton'eri* “-Atara egik pipia,/ azunbra ta erdirekin Bete yaiagun tripia,/ Gaiñera edan yaia-gun Aguardientia”/ *Niri beti gustau oi yat Edari puertia.*” B. E. IX-*Peruk dirautso Antoni Atera pipie/ Asunbra ta erdirekin bete daigun tripie/ Gainera edan daigun Aguardientie/ Neri beti gustau iat Edari fuertie.*

V Atzuari gorde deutzat ule copetia
Orain costaco jaco bera topatia,
Saldu ta erandaigun aguardientia
Buru most dabillega atzo trompetia.

Egunakoa: VIII-*Anton.-Atsoari kendu yautsat Ule-kopetia,/ Orain kostako yakok Bera topetia:/ Saldu ta edan yaiagun Aguardientia/ Buru motzik dabillega Atso tronpetia.*

B. E.: VII-*Atsuari gorde dautsat Ule kopetie/ Kostako iako orain Bera topetie/ Hau salduta edan daigun Aguardientie/ Buru motzik dabillega Atso tronpetie.*

VI Chapela escuan da pipia mosuan
Biderik topau esinda dabilzas ausuan
Estrepasatzen dira bigarren pausuan
Begui biacas aurrera sartzen dira posuan.

B.E.: XI-*Pipie mosuen ta Txapela eskuen/ Biderik topau ezinik Badabilzaz auzuen/ Estrepresetan dira Hurrengo pausuen/ Begi biez aurrera Sartu ziren pozuen.*

VII Peruc direutzo Antoni zerdosu Antonchu
Lupas artian majo egundu coipatzu
Bost aldiz descansuan artu degu pensu
Jarri saites onduan da artisu descansu.

B. E.: XIII-*Peruk dirautso Antoni Antontxu Antontxu/ Kakatza artian majo Ein dogu koipetsu/ Bost aldiz deskantsuan Hartu dogu pentzu/ Jarri zaiz albuhan da Hartuxu deskantsu.*

VIII Urrengo direutzo se Anton curcelu
Curcelu isan eta ilun eiten dosu
Asi siran contestetan Anton eta Fraiscu
Sure buru calbuac argui eguingo deuscu.

B. E. XII-*Peruk dirautsa Antoni Zu Anton kurtzulu/
Kurtzulua izan da Illun eiten dozu/ Hasten dira esaten Anton
eta Praisku/ Zure buruko kalbuak Argi eingo dauzku.*

IX Curcelu fina dago, argui ley mechia
Bestela esin guñey, billatu echia
Gure cortaco burdia balisa cochia
Anche erabilico gueunque gure atzo mochia.

Egunakoa: IX- Peru:- "*Krusaillu ipiñi egiok Argiai metxia/
Bestelan ezingo yok Billatu etxia:/ Kortako burdi zarra Ba-li-
tzok kotxia,/ Antxe erabilliteko Neure atso motxia*",

B.E.:XV-*Kurtzulu ipini iok/ Argiai metxie Bestela ezin gein-
ke Topatu etxie/ Kortako burdi zarra Banaiok kotxie/ Hantxe
ibilko neuke Neure atso motsie.*

X Oraindua, lagun Fraiscu, errotaria,
Guison errasoy ascoren, da erale garbia
Icusi ebanian Peruen buru arguia
Calbutic pentzau eban sala idarguia.

XI Aren andra tristiac, bildurres icara
Amamari cocoteco malen particara
Orraitino aguroc, baseuquen bisarra
Atzuari austeco cocotian picharra

B.E.: XVI-*Haren andra tristeak Bildurrez ikera/ Ana Mari
errota ta Malen partikera/ Horregaitik agurak Ba, zeukan bi-
zarra/ Atsuai kokotien Hausteko pitxerra.*

XII Biac an dabilsala lupasan alatin
 Esin comprenditu eusquera a la latin,
 Bator asto batequin, errotaco Martin
 Arec etara situsan, bere astuaquin.

B.E.: XII-Biak han ebixela Kakatzan aratin/ Ezin aitu euki-
 xuen Euskara ala latin/ Bator asto bategaz Errotako Martin/
 Honek atara zitun bere astoakin.

XIII Artua sopan eta, chocolatian ura
 Echuat atch onduan alan bisiguran
 Lebatz edo ternera, lucainca musturra
 Oyequin egotenoc tabernan gustura.

Eguna: VII-Peru.-*Artua zopan eta Txoletian ura,/ Etxuat
 atxonduan Olan bizi gura;/ Lebatz edo ternera ona lukaika
 musturra./ Orrekaz egoten naz Tabernan gustora."*

B. E.:V-Artoa zopa eta Txoletien ura/ Etxuak atxonduan
 Holan bizi gure/ Lebatz eta Ternera Lukenka musturre/
 Honekin egoten naz. Tabernan gusture.

XIV Peruc eta Antonec eguindabe juntia
 Moscorra artu baric echera es juatia
 Erretiratu arte errico gentia
 Echera duanari quentzeco multia.

Egunakoa: III-Biak egin ei eben Seguru juntia,/ Moskorra
 artu barik Etxera ez juatia;/ Erretiratu arte Erriko jentia,/ Etxera
 duanari Kentzeko multia.

B.E.: VI-Biak egin eidabe Seguru juntie/ Mozkorrik hartu
 barik Etxera ez juatie/ Erretiratu arte Herriko jentie/ Etxera
 doianari Kentzeko mueltie.

XV Orra berso onenac orra despedida
 Lusero egon gabe atzera beguira
 Aguroc atzuaquin, asarre badira
 alcarrenac dira ta, componduco dira.

B.E.: XVII-*Hamazazpi bertsorekin Horra despedida/ Kurtzuluen kantuak Akabatu dira/ Atsuak agurekin Haserre badira/ Alkarrenak (dira ta) Konponduko dira.*

Aldaeren balio literarioa

Bertso-sorta ironikoak eta zoragarriak dira, geure ustez, artikulu honetara aldatuak. Nork eginak ote dira? Estiloaren aldetik badirudi Durangoko zilargin edo plateroek egindakoen tankerako bertsoak direla: barregarriak, ironikoak, teatraltasun handikoak... Euskeraren aldetik Bizkaiko euskera eta Gipuzkoakoa nahasian daude, askotan gertatzen den bezala. Bien nahaste handia egon arren, bizkaieuskera gehiago dago Gipuzkoakoa baino. Bertso ironikoak direnez gero, hemengo bertso erdi zenbait trikiti-kopla bihurtu dira. Zeintzuk? Azkeneko Agurok atsuakin/ asarre badira/ alkarrenak dirata/ konponduko dira. Edota: Atzuari gorde deutzat/ ule copetia/Orain costaco jaco/ hera topatia. Hirugarren bat ere oso ezaguna: Kortako gurdia balitz...

Bertso-sail hau dugu, inolako zalantzarik gabe, adibiderik garbiena zeinbait bertso-sorta ezagunetako bertsoerdi trikiti-kopla bihurtu direlako frogara edo adibiderik garbiena. Baina kontu hori hurrengo lan baterako utziko dugu.

Aldaeren euskera dela eta ohar gutxi batzuk

Hainbat berri eta zehaztasun eman daitezke bertso-sorta hauetako euskararen gainean. Ez dugu, ordea, lan labur honetan guztien berri emateko astirik. Egin dezagun, hala ere, oharren bat edo beste. Dodgson-en aldaeran *lupasan alatin* dioena "lupatzan alatin" da, hau da, "basatzan ahoz gora". *Arat* edo *aratean* edo *aratinik* formak "ahoz gora" adierazten dute. Ondarroan *ara-* izan beharrean *ala-* da, eta, *aratean* edo *aratin* (fonetismoarekin) esan beharrean *alatin* diote, gure transkribatzaileak jartzen duen bezalaxe. Arkaismoaren aldetik

“norbaitek bizarrrik ez eukitzea” esapidea, “adorerik” ez izatea adierazi nahi du modu indartsuan. Esapide hori euskaraz oso gutxitan dokumentatzen da, ordea. Adibiderik zaharrenak Arrese Beitiaren bi dira, Orotariko Hiztegiak dakarrenez. Beste esapide bat bitxia bezain zaharra “multa kentzea” da. Gaur egun ere halaxe esaten dute Markinaldean zaharrek. Nik batutako adibide batean: “multa aundixe kendu eutsen. (H)oba nar rue kendu baleutsee...

Xavier Kaltzakorta